

BOOKTEGI



SOLDADU ZURBILAREN ABENTURA

ARTHUR CONAN DOYLE



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

ARTHUR CONAN DOYLE

Soldadu zurbilaren abentura

Itzulpena:

Irati Petralanda

Zuzenketa:

Enara Nazabal

Maketazioa:

Ander Labilla

Nire lagun Watsonen ideiak, nahiz eta mugatuak izan, oso tematiak dira. Aspalditik ari zait ni neure esperientzietako bat idaztera bultzatzen. Agian nik neuk ere eragin dut insistentzia hori, askotan esan baitiot bere kontakizunak azalekoak direla eta salatu baitut herritarren gustua asetzeko idazten duela, datu eta egitateetara zorrotz mugatu beharrean. "Saiatu zaitez zeu ere, Holmes!" erantzun dit berak, eta aitortu behar dut, luma eskuan hartu dudanean, ohartu naizela kontua irakurlearentzat interesgarria izango den moduan aurkeztu behar dela. Ondoren kontatuko dudak kasuak nekez huts egingo du horretan, nire bilduman gertatutako pasadizo bitxienetako bat baita, nahiz eta kasualitatez Watsonek ez zuen horri buruzko aprobeixatu nahi dut esateko nire ikerketa txikietan lagun bat eramaten badut ez dela sentimenduagatik edo kapritxoagatik; izan ere, Watsonek bere ezaugarri berezi batzuk ditu, eta bere apaltasunean ez die ia garrantzirik eman, nire lorpenen inguruan egin dituen balorazio handiegien artean. Zure ondorioak eta ekintzak aurrez ikusten dituen lagun bat arriskutsua izaten da beti; baina gertakari bakoitza etengabeko sorpresa gisa jasotzen duen lagun bat, eta ezustekoz betetako norbait, hori bai dela benetan laguntzaile ezin hobea.

Nire koadernoan begiratuta ikusten dut 1903ko urtarrilean izan zela, Boerren Bigarren Gerra amaitu eta berehala, James M. Dodd jaunaren bisita jaso nuenekoa; gizon britainiar handi, sendo, eguzkiak belztutako eta jarrera zuzenekoa zen. Garai hartan Watson onak emazte batengatik utzi ninduen; gure harremanean gogoratzen dudak ekintza berekoi bakarra da hori. Beraz, bakarrik nengoen.

Nire ohitura da leihoari bizkarra emanda esertzea eta bisitariak aurrean jartzea, argia zuzenean haien gainera eror dadin. James M. Dodd jaunak ez zekien oso ondo nola hasi elkarrizketa. Nik ez nion lagundu, bere isiltasunak behaketarako denbora gehiago ematen baitzidan. Esperientziak erakutsi dit bezeroengan nolabaiteko botere-sentsazioa eragitea komenigarria dela; beraz, nire ondorioetako batzuk esan nizkion.

'Hegoafrikatik zatoz, jauna, nik uste'.

'Bai, jauna, erantzun zuen, pixka bat harrituta'.

'Imperial Yeomanry-koa, uste dut'.

'Horixe bera'.

'Middlesexeko gorputzekoa, ziurrenik'.

'Bai horixe. Holmes jauna, magoa zara'.

Haren aurpegi nahasiari begira irribarre egin nuen.

'Gizon kementsu bat nire gelara sartzen denean, Ingalaterrako eguzkiak inoiz eman ezin lezakeen beltzarun horrekin, eta zapiak poltsikoan beharrean mahukan dituenen, ez da zaila nor den asmatzea. Bizar laburra daramazu, eta horrek soldadu profesionala zinela erakusten

du. Zaldizko baten itxura duzu. Middlesexi dagokionez, zure txartelak jada erakutsi dit Throgmorton kaleko burtsa-artekari bat zarela. Zer beste erregimentutan sartuko zinateke, bada?'

'Dena ikusten duzu.'

'Ez dut zuk baino gehiago ikusten, baina ikusten dudanari erreparatzeko entrenatu dut nire burua. Hala ere, Dodd jauna, ez zara etorri gaur goizean behaketaren zientziaz eztabaidatzera. Zer gertatu da Tuxbury Old Parken?'

'Holmes jauna...!'

'Lagun agurgarria, ez dago misteriorik. Zure gutuna izenburu horrekin iritsi zen, eta hitzordua oso baldintza premiazoetan finkatu zenuenez, argi zegoen bat-bateko zerbait eta garrantzitsua gertatu zela.'

'Bai, hala da. Baina gutuna arratsaldean idatzi nuen, eta gauza asko gertatu dira harrezkero. Emsworth koronelak ostiko batez kaleratu ez banindu...'

'Ostiko batez kaleratu!'

'Tira, horixe izan zen gertatutakoa. Gizon gogorra da Emsworth koronela. Armadako martineterik handiena bere garaian, eta hizkera zakarreko garaia zen hura ere. Ez nukeen koronela jasango, Godfreyren kontuagatik izan ez balitz.'

Pipa piztu eta aulkian atzera makurtu nintzen. 'Beharbada azalduko didazu zertaz ari zaren.'

Nire bezeroak maltzurki egin zuen irribarre.

'Uste nuen dena jakingo zenuela esan beharrik gabe,' esan zuen. 'Baina gertakariak emango dizkizut, eta Jainkoarengandik espero dut horiek zer esan nahi duten esan ahal izatea. Gau osoa esna eman dut buruari bueltaka, eta zenbat eta gehiago pentsatu, orduan eta sinesgaitzagoa egiten zait.'

'1901eko urtarrilean izena eman nuenean —duela bi urte eskas—, Godfrey Emsworth gaztea eskudroi berean sartu zen. Emsworth koronelaren seme bakarra zen —Emsworth, Krimeako Victoria Gurutzea zuena— eta borrokarako odola zuen zainetan, beraz, ez da harritzekoa boluntario aurkeztu izana. Ez zegoen mutil hoberik erregimentuan. Laguntasun bat sortu genuen; bizitza bera bizi denean eta poz eta oinaze berak partekatzen direnean bakarrik sor daitekeen laguntasun mota hori. Nire kidea zen, eta horrek asko esan nahi du Armadan. Latza eta leuna elkarrekin jasan genituen urtebeteko borroka gogorrean. Gero, ehiza-errifle indartsu baten balak jota geratu zen Pretoria inguruko Diamond Hill-eko ekintzan. Gutun bat jaso nuen Lurmutur Hiriko ospitaletik eta beste bat Southamptondik. Harrezkero, hitzik ere ez

—ezta hitz bakar bat ere, Holmes jauna— sei hilabete baino gehiagoan, eta nire lagunik minena zen.'

'Tira, gerra amaitu zenean eta guztiok itzuli ginenean, haren aitari idatzi nion Godfrey non zegoen galdetzeko. Erantzunik ez. Pixka bat itxaron nuen eta berriro idatzi nion. Oraingoan erantzun bat jaso nuen, laburra eta zakarra. Godfrey mundu bira bat egitera joana zen, eta ez zen probablea urtebetean itzultzea. Hori izan zen dena.'

'Ez nengoen konbentzituta, Holmes jauna. Gauza osoa erabat artifiziala iruditzen zitzaidan. Mutil ona zen, eta ez luke lagun bat horrela utziko. Ez zen bere estiloa. Gero, halaber, banekien diru askoren oinordekoa zela, eta baita aita eta bera ez zirela beti ondo moldatzen ere. Zaharra tirano bat zen batzuetan, eta Godfrey gazteak harrotasun handiegia zuen hori jasateko. Ez, ez nengoen konbentzituta, eta gaiaren muineraino iritsiko nintzela erabaki nuen. Gertatu zen, ordea, nire aferak txukuntzeko beharra nuela bi urteko absentziaren ondoren, eta, beraz, aste honetan bertan ekin diot berriro Godfreyren kasuari. Baina behin ekin diodanetik, dena alde batera uzteko asmoa dut amaierara arte ikusteko.'

James M. Dodd jauna etsai gisa baino lagun gisa izatea hobe litzatekeen pertsona mota zela zirudien. Haren begi urdinak zorrotzak ziren eta haren masailezur karratua gogor finkatu zen hitz egiten zuen bitartean.

'Bada, zer egin duzu?' galdetu nion.

'Nire lehen urratsa haren etxera joatea izan zen, Tuxbury Old Parkera, Bedfordetik gertu, egoera zein zen neure begiekin ikustera. Amari idatzi nion, beraz —aita petral horrekin nahikoa izan nuen— eta aurrez-aurreko eraso garbi bat egin nuen: Godfrey nire lagun mina zen, gure esperientzia komunei buruz kontatzeko gauza asko nituen, inguruetan izango nintzen, eragozpenik ote zegoen, eta abar? Erantzun gisa, amaren aldetik erantzun atsegina jaso nuen, eta gaua bertan igarotzeko gonbidapena. Horregatik jaitsi nintzen astelehenean.'

'Tuxbury Old Hall leku galdua da —edozein lekutatik bost zortzi kilometrora dago. Geltokian ez zegoen gurdian joateko aukerarik, beraz, oinez joan behar izan nuen, maleta eskuan, eta ia ilun zen iritsi nintzenerako. Etxe handi eta sakabanatu bat da, parke zabal baten erdian dagoena. Adin eta estilo guztietakoa dela esango nuke: Elisabet garaiko egur-armazoidun zimenduetatik hasi eta atari viktoriar bateraino. Barruan dena zen: panelak, tapizak eta erdi-ezabatutako koadro zaharrak; itzalen eta misterioaren etxe bat. Bazegoen maiordomo bat, Ralph zaharra, etxearen adin bera zuela zirudiena, eta haren emaztea, zaharragoa ere izan zitekeena. Godfreyren inudea izandakoa zen, eta hura bere bigarren ama gisa maite zuela entzun nion behin; beraz, harengana erakarria sentitu nintzen, haren itxura bitxia izan arren. Ama ere gustatu zitzaidan: sagu zuri goxo bat bezalako emakumea. Koronela bera izan zen gaitzetsi nuen bakarra.'

Ika-mika bat izan genuen berehala, eta geltokira oinez itzuliko nintzatekeen haren jokoan erortzen ari nintzela sentitu izan ez banu. Haren estudioan sartu ninduten zuzenean, eta han aurkitu nuen: bizkar-okerreko gizon handi bat, azal ilun eta bizar gris nahasikoa, bere mahai desordenatuaren atzean eserita. Sai-mokoaren moduko sudur gorri-zaindua zuen, eta bi begi gris kementsuk egiten zidaten so bekoki iletsuen azpitik. Orduan ulertu nuen zergatik hitz egiten zuen Godfreyk hain gutxitan bere aitaz.'

"Bada, jauna," esan zuen ahots karrankariarekin, "interesa dut bisita honen benetako arrazoiak ezagutzeko."

'Erantzun nion haren emazteari bidalitako gutunean azaldu nituela.'

"Bai, bai, Godfrey Afrikan ezagutu zenuela esan zenuen. Horretarako, noski, zure hitza besterik ez dugu."

"Hark niri idatzitako gutunak ditut poltsikoan."

"Mesedez, utz iezadazu ikusten."

'Eman nizkion bi gutunei begirada bat bota eta bueltan bota zizkidan.'

"Bada, zer gehiago?" galdetu zuen.'

"Zure seme Godfrey maite nuen, jauna. Lotura eta oroitzapen askok batzen gaituzte. Ez al da naturala haren isiltasunaz harritzea eta zer gertatu zaion jakin nahi izatea?"

"Badut gogoan, jauna, jada idatzi nizula zer gertatu zitzaion adierazteko. Mundu bira bat egitera joan da. Haren osasuna makal zebilen Afrikako esperientzien ondoren, eta amak eta biok atsedean osoa eta aire berritzea beharrezkoak zirela iritzi genion. Izan bedi atsegina azalpen hori helarazteko interesa izan dezakeen beste edozein laguni."

"Zalantzarik gabe," erantzun nion. "Baina beharbada izango zenuke adeitasuna itsasontziaren izena eta konpainia emateko, baita irteera-data ere. Ez dut zalantzarik gutun bat helarazteko gai izango nintzatekeela."

'Nire eskaerak nire anfitrioiak nahastu zein narritatu zuela zirudien. Bekoki handiak jaitsi zituen begien gainetik, eta hatzekin mahaia jo zuen egonezinik. Azkenean gora begiratu zuen, bere etsaiak xakean mugimendu arriskutsu bat egin duela ikusi eta nola erantzun erabaki duenaren adierazpenaz.'

"Jende askok, Dodd jauna," esan zuen, "ofentsatzat hartuko luke zure setakeria madarikatu hori, eta pentsatuko luke insistentzia hori lekuz kanpoko lotsagabekeria puntura iritsi dela."

"Zure semearenganako dudak benetako maitasunari egotzi behar diozu, jauna."

“Hain zuzen ere. Jada egin ditut kontzesio guztiak alde horretatik. Eskatu behar dizut, ordea, ikerketa horiek bertan behera uzteko. Familia bakoitzak badu bere barne-ezagutza eta bere motiboak, kanpokoentzat beti argi geratu ezin direnak, asmo onak izan arren. Nire emaztea irrikaz dago zuk kontatu ditzakezun Godfreyren iraganeko kontuak entzuteko, baina eskatuko nizuke oraina eta etorkizuna bakean uzteko. Ikerketa horiek ez dute helburu erabilgarririk betetzen, jauna, eta egoera delikatuan eta zailean jartzen gaituzte.”

'Hala iritsi nintzen itxu-bide batera, Holmes jauna. Ez zegoen harago pasatzerik. Egoera onartzen nuela simulatzea besterik ezin izan nuen egin, nire lagunaren patua argitu arte ez nuela etsiko nire artean zin eginez. Arratsalde motela izan zen. Hirurok isilean afaldu genuen gela zahar, ilun eta higatu batean. Andreak galdera asko egin zizkidan bere semeari buruz, baina agurea goibel eta deprimitu zegoen. Prozedura osoarekin hain aspertuta nengoenez, ahal bezain laster aitzakia bat jarri eta nire logelara erretiratu nintzen. Beheko solairuko gela handi eta huts bat zen, etxeko gainerakoa bezain goibela; baina urtebetez *veldt*-ean lo egin ondoren, Holmes jauna, norberaren bizilekuarekin ez da hain zorrotza izaten. Gortinak ireki eta lorategira begiratu nuen, gau ederra zela eta ilargierdi distiratsua zegoela ohartzu. Orduan, sutondoan eseri nintzen, argia ondoan nuen mahai baten gainean nuela, eta eleberri batekin gogoia entretenitzen saiatu nintzen. Ralph-ek, maiordomo zaharrak, eten ninduen, ordea, ikatz hornidura berri batekin sartu denean.'

“Pentsatu dut gauean eskasiarik izango zenuela, jauna. Eguraldi gogorra egiten du eta gela hauek hotzak dira.”

'Gela utzi aurretik zalantza egin zuen, eta nire aldera begiratu nuenean niri begira zegoen, aurpegi zimurtuan begirada malenkoniatsua zuela.'

“Barkatu, jauna, baina ezin izan dut saihestu afaltzerakoan Godfrey gazteari buruz esan duzuna entzutea. Badakizu, jauna, nire emazteak hezi zuela, eta esan dezaket haren aitaponte-edo naizela. Naturala da interesa izatea. Eta ondo portatu zela diozu, jauna?”

“Ez zegoen erregimentuan gizon ausartagorik. Behin Boerren errifleen azpitik atera ninduen, bestela beharbada ez nintzateke hemen egongo.”

'Maiordomo zaharrak bere esku meheak igurtzi zituen.'

“Bai, jauna, bai, hori Godfrey jauna da bete-betean. Beti izan da ausarta. Ez dago parkean hark igo ez duen zuhaitzik. Ezerk ez zuen gelditzen. Mutil ederra zen —eta oi, jauna, gizon ederra zen.”

'Zutik jarri nintzen bat-batean.'

“Begira hona!” oihukatu nuen. “Iraganean ari zara?. Hilik balego bezala hitz egiten duzu. Zer da misterio hau guztia? Zer gertatu da Godfrey Emsworthekin?”

'Agurea sorbaldatik heldu nuen, baina hark atzera egin zuen izututa.'

“Ez dakit zertaz ari zaren, jauna. Galdetu ugazabari Godfrey jaunaz. Hark daki. Niri ez dagokit tartean sartzea.”

'Gela uzten ari zen, baina besoari heldu nion.'

“Entzun,” esan nion. “Galdera bati erantzungo diozu joan aurretik, gau osoa hemen eduki behar bazaitut ere. Godfrey hilda dago?”

'Ezin izan zion nire begiradari eutsi. Hipnotizatutako gizon baten gisa zegoen. Erantzuna kostata atera zitzaion ezpainenatik. Izugarria eta ezustekoa izan zen.'

“Jainkoak nahi luke hala balitz!” oihukatu zuen, eta askatuz, gelatik ihes egin zuen.'

'Pentsatuko duzu, Holmes jauna, ez nintzela egoera oso gozoan itzuli nire aulkira. Agurearen hitzek interpretazio bakarra zutela zirudien. Argi zegoen nire lagun gizajoa familiako ohorea ukitzen zuen ekintza kriminal edo, gutxienez, ohore gabekoren batean sartuta zegoela. Agure zorrotz hark bere semea urrutira bidali eta munduaren aurrean ezkutatu zuen, eskandaluren bat argitara atera ez zedin. Godfrey mutil kaskarin samarra zen. Ingurukoek erraz eragiten zioten. Zalantzarik gabe, esku txarretan erori eta bere hondamendira bideratu zuten. Negargarria zen kontua, hala bazen behintzat, baina oraindik ere nire betebeharra zen hura aurkitzea eta lagun ote nezakeen ikustea. Gaiari bueltaka ari nintzela, gora begiratu nuen, eta han zegoen Godfrey Emsworth nire aurrean zutik.'

Nire bezeroak eten bat egin zuen, hunkituta balego bezala. 'Jarraitu, mesedez,' esan nion. 'Zure arazoak ezaugarri oso ezohikoak ditu.'

'Leihoaren kanpoaldea zegoen, Holmes jauna, aurpegiak kristalaren kontra estututa. Esan dizut gauari begira nengoela. Hala egin nuenean, gortinak erdi irekita utzi nituen. Haren irudia hutsune horretan geratu zen enkoadratuta. Leihoa lurreraino iristen zen eta haren luzera osoa ikus nezakeen, baina haren aurpegiak nire begirada gatibu hartu zuen. Hil-zurbil zegoen — inoiz ez dut ikusi gizonik hain zuri —. Mamuek itxura hori dutela suposatzen dut; baina haren begiek nireekin topo egin zuten, eta gizon bizi baten begiak ziren. Atzera egin zuen ni begira nengoela ikusi zuenean, eta iluntasunean desagertu zen.'

'Bazegoen zerbait beldurgarria gizon harengan, Holmes jauna. Ez zen soilik aurpegi beldurgarri hura iluntasunean lanperna bezain zuri distiratzten. Hori baino sotilagoa zen — zerbait iheskorra, zerbait isilpekoa, zerbait erruduna—, ezagutu nuen mutil zintzo eta gizonkotearen oso bestelakoa. Beldur sentsazio bat utzi zidan gogoan.'

'Baina gizon bat urtebetez edo biez soldadu ibili denean eta Boer anaia jolaskide duenean, nerbioei eutsi eta azkar jokutzen du. Godfrey ia desagertu aurretik leihoan nengoan ni. Kisketak huts egiten zuen eta denbora pixka bat behar izan nuen leihoa irekitzeko. Orduan,

handik azkar joan eta lorategiko bidean barrena korrika hasi nintzen, hark hartu zezakeen norabidean.'

'Bide luzea zen eta argia ez zen oso ona, baina iruditu zitzaidan nire aurrean zerbait mugitzen ari zela. Korrika joan nintzen eta bere izenari deitu nion, baina alferrik izan zen. Bidearen amaierara iritsi nintzenean beste batzuk zeuden, norabide desberdinetan banatzen zirenak kanpoaldeko eraikin batzuetara. Zalantzan gelditu nintzen, eta hala nengoela, ate bat ixtearen soinua entzun nuen garbi. Ez zen nire atzean, etxean, baizik eta nire aurrean, ilunpetan nonbait. Hori nahikoa izan zen, Holmes jauna, ikusi nuena ez zela ikuskari bat ziurtatzeko. Godfreyk ihes egin zidan, eta ate bat itxi zuen bere atzetik. Horretaz ziur nengoen.'

'Ez zegoen gehiago egiteko ezer, eta gaua kezkatu igaro nuen gaia gogoan nuela, gertakariak azalduko zituen teoriari bueltaka. Hurrengo egunean koronela adiskidetsuago aurkitu nuen, eta bere emazteak inguruan intereseko leku batzuk bazirela esan zuenez, beste gau bat igarotzea eragozpenik izango ote zen galdetzeko aukera eman zidan. Agurearen nolabaiteko gogoz kontrako onespeneri esker, egun osoa izan nuen nire behaketak egiteko. Guztiz konbentzita nengoen Godfrey nonbait gertu ezkatututa zegoela, baina non eta zergatik argitu gabe zegoen oraindik.'

'Etxea hain zen handia eta nahasia, erregimentu oso bat ezkatutu zitekeela bertan inor ohartu gabe. Sekretua han balego, zaila izango zitzaidan hartan sartzea. Baina entzun nuen atearen hotsa ez zen, seguru asko, etxekoa. Lorategia esploratu behar nuen eta zer aurkitzen nuen ikusi. Ez zegoen zailtasunik bidean, agureak euren kontuetan okupatuta baitzeuden eta nire kasa utzi nindutelako.'

'Baziren kanpoaldeko eraikin txiki batzuk, baina lorategiaren amaieran tamaina jakin bateko eraikin isolatu bat zegoen —lorezainaren edo basozainaren bizilekua izateko bezain handia—. Izan ote zitekeen hau ate hura ixtearen soinua atera zen lekua? Axolagabe hurbildu nintzen, lursailetan zehar noraezean nenbilela emanek. Hala nengoela, gizon txiki, bizi eta bizardun bat, beroki beltzez eta bonbetaz jantzita —ez zuen lorezain itxurarik—, atetik atera zen. Nire harridurarako, giltzaz itxi zuen bere atzetik eta giltza poltsikoan sartu zuen. Orduan harriduta begiratu zidan.'

“Hemen bisitari zaude?” galdetu zidan.'

'Azaldu nion hala zela eta Godfreyren laguna nintzela.'

“Zer pena bidaian egotea, asko gustatuko litzaioke-eta ni ikustea,” jarraitu nuen.'

“Hala da. Hain zuzen,” esan zuen, nolabaiteko errudun airez. “Zalantzarik gabe, une aproposagoan itzuliko zara.” Aurrera egin zuen, baina buelta eman nuenean lorategiaren amaierako ereinotzen artean ezkatututa niri begira zegoela ikusi nuen.'

'Etxe txikiari begiratu on bat eman nion ondotik igaro nintzenez, baina leihoak gortina lodiz estalita zeuden, eta ikus zitekeenaren arabera, hutsik zegoen. Nire jokoak galdu nezakeen, eta baita lekutik alde egiteko agindu ere, ausartegi jokatzen banuen, oraindik ere zelatatzen nindutela jabetzen nintzen-eta. Beraz, etxera itzuli nintzen eta gauari itxaron nion nire ikerketarekin jarraitu aurretik. Dena ilun eta isilik zegoenez, nire leihotik irten nintzen eta ahal bezain isilen ezkutuko etxetxoraino joan nintzen.'

'Esan dizut gortina lodiz estalita zegoela, baina orduan konturatu nintzen leihoak itxita ere bazirela pertsianekin. Argi piska bat iragazten zen, eta horretan kontzentratu nintzen. Zortea izan nuen, gortina ez baitzegoen erabat itxita, eta pitzadura bat zegoen pertsianan, gelaren barrualdea ikusi ahal izateko. Leku alaia zen, lanpara argitsu bat eta su bizia zituen. Nire aurrean eserita, goizean ikusi nuen gizon txikia zegoen. Pipa erretzen eta egunkari bat irakurtzen ari zen.'

'Zein egunkari?' galdetu nion.

Nire bezeroak haserre zirudien kontakizuna eten nuelako.

'Garrantzirik al du?' galdetu zuen.

'Funtsezkoa da.'

'Benetan ez nion erreparatu.'

'Beharbada ikusi zenuen formatu handiko egunkaria zen, edo astekariekin lotzen den mota txikiagokoa.'

'Orain aipatzen duzula, ez zen handia. *Spectator* izan zitekeen. Hala ere, xehetasun horietarako arreta gutxi nuen, bigarren gizon bat baitzegoen leihoari bizkarra emanda eserita, eta zin egingo nuke bigarren gizon hori Godfrey zela. Ezin nuen haren aurpegia ikusi, baina haren sorbalden malda ezaguna zen niretzat. Ukondoaren gainean jarrita zegoen, malenkonia handiko jarreran, gorputza sutara zuzenduta. Zer egin behar nuen zalantzan nengoela, ukaldi gogor bat sentitu nuen sorbaldan, eta han zegoen Emsworth koronela nire ondoan.'

“Bide honetatik, jauna!” esan zuen ahots apalez. Isilik joan ginen etxera, eta nire lo-gelaraino jarraitu nion. Tren-ordutegi bat hartu zuen hall-ean.'

“Goizeko 8:30ean tren bat dago Londresera,” esan zuen. “Gurdia atean izango da zortzietan.”

'Zuri-zuri zegoen haserrearen haserrez, eta, egia esan, nire burua egoera hain zailean ikusi nuen, ezen barkamen eskaera nahasi batzuk besterik ezin izan nituen esan, nire lagunarengatik kezkatatik aitzakiatu nahian.'

“Gaiak ez du eztabaidarik onartzen,” esan zuen bat-batean. “Gure familiaren pribatutasunean sartze madarikatua egin duzu. Gonbidatu gisa etorri zara eta espia bihurtu zara. Ez dut gehiago esateko, jauna, zu berriz ikusteko gogorik ez dudala baino.”

'Hori entzutean, pazientzia galdu nuen, Holmes jauna, eta bero-bero hitz egin nion.'

“Zure semea ikusi dut, eta konbentzituta nago zure arrazoiengatik mundutik ezkutatzen ari zarela. Ez dakit zeintzuk diren horrela bakartzeko dituzun motiboak, baina ziur nago ez dela askea. Ohartarazten dizut, Emsworth koronela, nire lagunaren segurtasunaz eta ongizateaz ziurtatu arte ez dudala etsiko misterioaren muinera iristeko ahaleginean, eta ziur ez dudala nire burua kikiltzen utziko zuk esan edo egin dezakezun ezerengatik.”

'Agureak deabruaren itxura zuen eta benetan pentsatu nuen erasotuko ninduela. Esan dizut erraldoi zahar, argal eta kementsua zela, eta ni ahula ez naizen arren, gogorra izango litzatekeela hari aurre egiteko nireari eustea. Hala ere, haserrezko begirada luze baten ondoren, bira erdi eman eta gelatik irten zen. Nire aldetik, goizeko trena hartu nuen, zuzenean zuregana etortzeko eta zure aholkua eta laguntza eskatzeko asmo sendoarekin.'

'Bada, zerbitzariak,' galdetu nion; 'zenbat zeuden etxean?'

'Dakidala, maiordomo zaharra eta haren emaztea bakarrik. Modurik xumeenean bizi zirela zirudien.'

'Ez zegoen zerbitzaririk, orduan, eraikin isolatu horretan?'

'Inor ez, bizarun gizon txiki hark funtzio hori betetzen ez bazuen behintzat. Bera, ordea, maila altuagoko pertsona zela zirudien.'

'Hori oso adierazgarria dirudi. Izan al zenuen janaria etxe batetik bestera eramaten zuteneko zantzurik?'

'Orain aipatzen duzula, Ralph zaharra ikusi nuen saski bat lorategiko bidetik behera zeramala, etxe horren norabidean. Janariaren ideia ez zitzaidan une hartan bururatu.'

'Egin al zenuen galdeketa herrian?'

'Bai, egin nuen. Geltokiko buruarekin eta herriko ostalariarekin hitz egin nuen. Nire kide zaharrari buruz, Godfrey Emsworthez, zerbait bazekiten galdetu nien. Biek ziurtatu zidaten mundu bira bat egitera joana zela. Etxera itzuli eta berehala berriro abiatu omen zen. Istorioa, bistan denez, mundu guztiak onartzen zuen.'

'Ez zenuen ezer esan zure susmoei buruz?'

'Ezer ez.'

'Oso zuhurra izan zen hori. Gaia ikertu egin behar da, zalantzarik gabe. Zurekin itzuliko naiz Tuxbury Old Parkera.'

'Gaur bertan?'

Une hartan, nire lagun Watsonek Abbey School-eko kasu gisa deskribatu zuena argitzen ari nintzen, Greyminster-eko dukea tartean zegoena. Turkiako Sultanak emandako enkargu bat ere banuen, berehalako ekintza eskatzen zuena, ondorio politiko larriak sor baitzitezkeen jaramonik egin ezean. Beraz, nire egunkariak dioenez, hurrengo astearen hasierara arte ez nintzen gai izan Bedfordshirera abiatzeko James M. Dodd jaunarekin batera. Eustonera bidean gindoazela, itxura zorrotz eta isileko gizon bat jaso genuen, beharrezko moldaketak egin nituen lagun bat.

'Hau lagun zahar bat da,' esan nion Doddi. 'Baliteke haren presentzia guztiz beharrezkoa ez izatea, edo, bestalde, funtsezkoa gertatzea. Oraingoz ez da beharrezkoa gai sakontzea.'

Watsonen kontakizunek irakurlea ohitu dute, zalantzarik gabe, kasu bat aztertzen ari naizen bitartean hitzik ez galtzeko edo nire pentsamenduak ez azaltzeko dudan ohiturara. Doddek harrিতa zirudien, baina ez zen ezer gehiago esan, eta hirurok elkarrekin jarraitu genuen bidaia. Trenean Doddi galdera bat gehiago egin nion, gure kideak entzun zezan nahi nuena.

'Zure lagunaren aurpegia leihoan argi ikusi zenuela diozu, hain argi non ziur zaudela haren identitateaz?'

'Ez dut inolako zalantzarik. Sudurra kristalaren kontra estututa zuen. Lanpararen argiak bete-betean jotzen zuen.'

'Ezin al zitekeen hura zirudien norbait izan?'

'Ez, ez, hura zen.'

'Baina aldatuta zegoela diozu?'

'Kolorean bakarrik. Haren aurpegia —nola deskribatuko nuke?— arrain-triparen zurbiltasun hori zuen. Zurituta zegoen.'

'Alde guztietatik da maila berean zurbila?'

'Ez dut uste. Haren bekokia izan zen hain argi ikusi nuena, kristalaren kontra baitzegoen.'

'Deitu al zenion?'

'Ikaratuegi eta izutuegi nengoen une hartan. Gero haren atzetik joan nintzen, esan dizudan bezala, baina emaitzarik gabe.'

Nire kasua ia osatuta zegoen, eta gertakari txiki bat besterik ez zen falta borobiltzeko. Bidaia luze baten ondoren nire bezeroak deskribatutako etxe zahar eta sakabanatu hartara iritsi ginenean, Ralph maiordomo zaharrak ireki zigun atea. Gurdi bat hartu nuen egun osorako eta nire lagun adinduari barruan geratzeko eskatu nion, dei egiten ez genion bitartean. Ralph, agure zimurtu txiki bat, ohiko jaka beltzez eta gatz-eta-piper jantziarekin zegoen, aldaketa bitxi bakar batekin. Larru marroizko eskularruak zeramatzan, eta gu ikusi bezain laster kendu zituen, hall-eko mahaiaren gainean utziz barrura sartu ginenean. Nire lagun Watsonek aipatu izan duen bezala, zentzumen oso zorrotzak ditut, eta usain ahul baina sarkor bat sumatu nuen. Hall-eko mahaiaren zegoela zirudien. Jiratu nintzen, nire txapela han utzi, nahita lurrera bota, jasotzeko makurtu eta nire sudurra eskularruetatik oinbete batera jartzea lortu nuen. Bai, zalantzarik gabe haietatik zetorren usain tar-itxurako bitxi hura. Estudioan sartu nintzen nire kasua borobilduta nuela. Ai, nire jokoa hain agerian utzi behar izatea nire istorioa neuk kontatzen dudanean! Kateko kate-begi horiek ezkutatzuz lortzen zuen Watsonek bere amaiera deigarri horiek sortzea.

Emsworth koronela ez zegoen bere gelan, baina berehala iritsi zen Ralph-en mezua jaso ondoren. Haren urrats azkar eta astunak entzun genituen pasilloan. Ateak zast egin zuen eta barruan sartu zen, bizarrak tente eta aurpegia desfiguratuta; inoiz ikusi dudana agurerik beldurgarriena zen. Gure txartelak eskuan zituen, eta txikitu eta puskak zapaldu zituen.

'Ez al dizut esan, sudur-luze madarikatua, debekatuta duzula hemen sartzea?' oihukatu zuen. 'Ez zaitetz ausartu zure aurpegi madarikatua hemen berriro erakusten. Nire baimenik gabe berriro sartzen bazara, indarkeria erabiltzeko eskubidea izango dut. Tiro egingo dizut, jauna! Jainkoagatik, egingo dut! Zuri dagokionez, jauna,' esan zidan niri zuzenduz, 'abisua bera ematen dizut. Ezagutzen dut zure lanbide doilorra, baina eraman itzazu zure ustezko talentuak beste toki batera. Hemen ez dago horretarako lekurik'.

'Ezin naiz hemendik joan,' esan zuen nire bezeroak tinko, 'Godfreyren berezko ezpainetatik entzun arte ez dagoela inolako hertsapenik jasan beharrez'.

Gure behartutako anfitrioiak kanpaia jo zuen.

'Ralph,' esan zuen, 'deitu poliziari eta esan ikuskatzaileari bi poliziakide bidaltzeko. Esan iezaiozu lapurrak daudela etxean'.

'Une bat,' esan nuen nik. 'Jakin behar duzu, Dodd jauna, Emsworth koronela bere eskubidearen barruan dagoela eta guk ez dugula inolako estatus legalik bere etxean. Beste alde batetik, hark onartu beharko luke zure ekintza haren semearekiko kezkek eragin duela soilik. Ausartzen naiz itxarotera bost minutuko elkarriketa bat izateko baimena ematen badidate, gaiaren inguruko ikuspuntua aldatu ahal izango diodala'.

'Niri ez zait hain erraz iritzia aldatzen,' esan zuen soldadu zaharrak. 'Ralph, egin esandakoa. Zeren zain zaude? Deitu poliziari!'.

'Ezta pentsatu ere,' esan nuen nik, bizkarra atearen kontra jarriz. 'Poliziaren edozein esku-hartzeak beldur diozun hondamendia eragingo luke'. Nire ohar-liburua atera eta hitz bakar bat idatzi nuen orri solte batean. 'Hori da,' esan nuen orria Emsworth koronelari ematen nion bitartean, 'hona ekarri gaituena'.

Idatzitakoari begira geratu zen, harridura ez zen beste adierazpen guztiak aurpegiari kenduta. 'Nola dakizu?' toteldu zuen, bere aulkian astun esertzen zen bitartean.

'Gauzak jakitea da nire lana. Hori da nire ofizioa'.

Pentsamendu sakonean geratu zen eserita, bere bizar nahasiaren gainean esku argala mugituz. Gero, etsipenezko keinu bat egin zuen.

'Bada, Godfrey ikusi nahi baduzue, ikusiko duzue. Ez da nire nahia, baina behartu egin nauzue. Ralph, esan Godfrey jaunari eta Kent jaunari bost minutu barru haiekin izango garela'.

Denbora hori igarotakoan, lorategiko bidetik jaitsi eta amaierako etxe misterioitsuaren aurrean aurkitu ginen. Bizardun gizon txiki bat zegoen atean, harridura handiz.

'Hau oso bat-batekoa da, Emsworth koronela,' esan zuen. 'Gure plan guztiak nahasiko ditu'.

'Ezin dut lagundu, Kent jauna. Behartu egin gaituzte. Godfrey jaunak ikus gaitzake?'

'Bai, barruan zain dago'. Jiratu eta altzariz soil hornitutako aurreko gela handi batera eraman gintuen. Gizon bat zegoen zutik sutondoari bizkarra emanda, eta hura ikustean, nire bezeroak aurrera egin zuen eskuak luzatuta.

'Baina, Godfrey, adiskide, hau bikaina da!'. Baina besteak atzera eginarazi zion.

'Ez nazazu ukitu, Jimmie. Mantendu distantzia. Bai, harrituta begira zaude! Ez dut B eskuadroiko Emsworth kaporala ematen, ezta?'

Haren itxura harrigarria zen, benetan. Ikusten zen gizon ederra izan zela, Afrikako eguzkiak beltzarandutako ezaugarri markatuekin; baina azal ilun horren gainean orban zuri bitxiak agertzen ziren, haren azala zurituta balego bezala.

'Horregatik ez dut bisitarik nahi,' esan zuen. 'Zuk ez didazu axola, Jimmie, baina zure lagun hau gabe hobeto egongo nintzateke. Suposatzen dut arrazoi onen bat egongo dela, baina desabantailan harrapatu nauzu'.

'Dena ondo zegoela ziurtatu nahi nuen, Godfrey. Zure leihoan ikusi zintudan gau hartan, eta ezin izan dut gaia bakean utzi dena argitu arte'.

'Ralph zaharrak esan zidan hor nengoela, eta ezin izan nion eutsi zuri begirada bat botatzeari. Ikusi ez ninduzula itxaroten nuen, eta nire zulora korrika joan behar izan nuen leihoa irekitzen entzun nuenean'.

'Baina zer gertatzen da, zerutarren izenean?'

'Bada, ez da kontatzeko istorio luzea,' esan zuen, zigarreta bat pizten zuen bitartean. 'Gogoratzen duzu Buffelsspruit-eko goizeko borroka hartan, Pretoria kanpoaldean? Jota nengoela entzun zenuen?'

'Bai, entzun nuen, baina ez nuen xehetasunik jaso'.

'Hirurok taldetik banatu ginen. Simpson —Baldy deitzen geniona—, Anderson eta ni. Anderson eta Simpson hil egin zituzten. Nik ehiza-errifle indartsu baten bala jaso nuen sorbaldan. Zaldiaren gainean eutsi nion, ordea, eta hainbat milia galopatu zituen ni zorabiatu eta zelatik erori nintzen arte'.

'Nire onera etorri nintzenean ilunabarra zen. Harridura handiz, etxe bat ikusi nuen nire ondoan, etxe handi bat atari zabalarekin. Hotz izugarria egiten zuen, eta nire itxaropen bakarra etxe hartara iristea zen. Pausoak igo, atea zeharkatu eta ohe batzuk zituen gela handi batean sartu nintzen, haietako baten gainera eroriz. Lo sakonean geratu nintzen'.

'Esnatu nintzenean, goizeko eguzkiak logela biluzi eta zuritua argitzen zuen. Nire aurrean gizon txiki bat zegoen holanderaz oihuka, bi esku beldurgarri mugituz, belaki marroien itxura zutenak. Haren atzean gizon talde bat zegoen parrez. Baina hotzikara bat sentitu nuen haiei begiratzean. Ez zegoen gizaki normal bakar bat ere. Guztiak zeuden deformatuta edo hantuta modu bitxiren batean'.

'Gizon zahar bat sartu zen gelan, mediku arduraduna, eta niregana zuzendu zen harridura handiz. "Nola iritsi zara hona?" galdetu zidan. "Zauritutako sorbalda hori zaindu behar dizugu. Baina, gizona! Bataila-eremuan baino arrisku handiagoan zaude hemen. Lepradunen Ospitalean zaude, eta lepradun baten ohean egin duzu lo"'.
'Gehiago esan behar dizut, Jimmie? Itzuli nintzenean, nire aurpegiko seinale izugarri hauek esan zidaten ez nintzela libratu. Zer egin behar nuen? Etxe isolatu honetan nengoen, konfiantzazko bi zerbitzarirekin eta Kent jaunaren, zirujauaren, laguntzarekin. Alternatiba beldurgarria zen: bizitza osorako isolamendua arrotzen artean, askatzeko itxaropenik gabe. Isilpekotasun osoa beharrezkoa zen, bestela leku honetatik aterako ninduten nire patu beldurgarrira eramateko. Zuk ere, Jimmie, ez zenuen jakin behar'.

Emsworth koronelak niri seinalatu ninduen.

'Hau da nire eskua behartu duen jauna,' esan zuen, 'Lepra' hitza idatzita nuen papera zabalduz. 'Hainbeste zekiela ikusita, seguruagoa iruditu zait dena jakitea'.

'Eta hala izan da,' esan nuen nik. 'Nirekin dakarren lagunak, Sir James Saunders-ek, bere diskrezio osoarekin aholku emango digu lagun gisa, eta ez espezialista gisa'.

Sir Jamesi barrura sartzeko eskatu nion. Eta hemen nire prozesu logikoa azaldu nien: 'Krimena baztertu nuen, ez baitzegoen horrelako berririk. Eztasuna ere baztertu nuen, ez baitzen hertsapen handirik ikusten. Hirugarren aukera geratzen zen, arraroa izan arren: lepra. Afrikan ohikoa da, eta azala zuritzea gaixotasunaren ondorioa da. Ralph-ek desinfektatzaile usaina zuten eskularruak erabiltzeak nire susmoak berretsi zituen'.

Azterketa hori amaitzen ari nintzela, dermatologo handia sartu zen gelan, baina haren begietan gizatasun epela zegoen. Koronelari eskua eman zion.

'Askotan berri txarrak ematea egokitzen zait, eta gutxitan onak,' esan zuen. 'Okasio hau oso ongi etorria da. Ez da lepra'.

'Zer?'

'Sasilepra edo iktiosi kasu bat da, ezkatak bezalako azaleko afekzio bat, itsusia eta iraunkorra, baina seguru asko sendagarria, eta, zalantzarik gabe, ez-kutsakorra'.

'Bai, Holmes jauna, kointzidentzia harrigarria da. Baina kointzidentzia al da? Ez ote da gazte honek pairatu duen izuak berak sortutako efektu fisikoa?'

'Nire profesionaltasuna jokoan jartzen dut...' esan zuen Sir Jamesek, baina andreak zorabioa izan zuen pozezko kolpe horren ondorioz